



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko irailaren 5a

109. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Ospitaleguneko farmakoen kudeaketari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).
- Santos Cerdán León jaunak foru parlamentari karguari uko egitea (32. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Ospitaleguneko farmakoen kudeaketari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko irailaren 4an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Nafarroako Ospitaleguneko farmakoen kudeaketari buruzko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko irailaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako Ospitaleguneko farmakoen kudeaketari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

I. Sarrera (3. or.).

II. Nafarroako Ospitaleguneko farmakoen kudeaketa (4. or.).

II.1. Nafarroako Ospitaleguneko farmakoen gastuaren bilakaera (5. or.).

II.2. Nafarroako Ospitalegunean farmakoen kudeaketan parte hartzen duten eragileak (6. or.).

II.3. Nafarroako Ospitaleguneko Farmazia Zerbitzuaren jarduera (8. or.).

III. Helburuak, norainokoa eta mugak (9. or.).

IV. Ondorioak eta gomendioak (10. or.).

IV.1. Farmakoen gastuaren eta kontsumoaren bilakaera Nafarroako Ospitalegunean (2012-2016) (10. or.).

IV.2. Nafarroako Ospitaleguneko farmakoen kudeaketarako prozedura (13. or.).

IV.3. Farmakoak erosteari buruzko araudia betetzea (16. or.).

IV.4. Abonamenduen edo/eta beherapenen kudeaketari buruzko analisia (18. or.).

IV.5. Farmakoen lagin baten berrikuspena (19. or.).

IV.6. Amaierako ondorioa eta gomendioak (20. or.).

1. eranskina O-NOZeko ospitale-zentroetako farmazia zerbitzuen eginkizunak (Farmazia Laguntzari buruzko 12/2000 Foru Legea) (22. or.).

2. eranskina O-NOZeko Farmazia Zuzendariordetzaren eginkizunak (171/2015 Foru Dekretua, O-NOZen estatutuak onestekoa) (23. or.).

3. eranskina O-NOZeko Farmazia Batzorde Zentralaren eginkizunak (42/2016 Foru Agindua, batzorde hori sortzekoa) (24. or.).

4.1. eranskina Farmakoen hornidura (25. or.).

4.2. eranskina Farmakoen banaketa: preskripzioa, baliozkotzea, dispentsazioa eta SAP-MM sisteman erregistratzea. (26. or.).

4.3. eranskina Farmakoen banaketa: preskripzioa, baliozkotzea, dispentsazioa eta SAP-GE21 sisteman erregistratzea. (27. or.).

Nafarroako Ospitaleguneko farmakoen kudeaketari buruz Kontuen Ganberak egindako behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (28. or.).

Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna (31. or.).

I. SARRERA

Kontuen Ganberak 2017ko urteko fiskalizazio programan sartu zuen fiskalizazio txosten bat egitea Nafarroako Ospitaleguneko farmakoen kudeaketari buruz.

Zehazki, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren farmazia-gastu osotik, laguntza espezializatuko ospitale-esparruari dagokiona aztertu dugu, eta zehazkiago, Nafarroako Ospitalegunekoa, azterketatik kanpo utzita Tuterako Reina Sofía Ospitalekoa eta Lizarrako García Orcoyen Ospitalekoa. Halaber, kanpo utzi dugu oinarritzko osasun laguntzaren gastua, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren (O-NOZ) atal horretatik agintzen diren prestazio farmazeutikoetatik edo errezetatik heldu dena.

Lan hori 2017ko otsailetik ekainera egin zuen auditoriako bi teknikarik, sistema informatikoen teknikari batek eta auditore batek osatutako lantaldeak, Kontuen Ganberaren zerbitzu juridikoekin, informatikoekin eta administratiboekin lankidetzan.

Txostenak lau atal dauzka, sarrera hau barne; bigarrenean, Nafarroako Ospitaleguneko farmakoen kudeaketarekin lotutako alderdi orokorrak deskribatzen dira; hirugarrenak egindako lanaren helburuak, norainokoa eta mugak azaltzen ditu, eta laugarrenean, azkenekoan, lortutako ondorio eta gomendio nagusiak azaltzen dira. Gainera, txostenak lau eranskin dauzka, gure lanaren atal batzuetan jasotako informazioa zabaltzen dutenak.

Eskerrak eman nahi dizkiogu Nafarroako Ospitaleguneko Farmazia Zerbitzuko, Informatikaren, Telekomunikazioen eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusiko, Nafarroako Ospitaleguneko Kontabilitate-kudeaketaren eta Fakturazioaren Ataleko eta O-NOZeko langileei lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, lan honen emaitzak honako kargu hauetan ziharduten pertsoneri jakinarazi zitzaizkien, alegazioak aurkez zitzaizen:

- Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilaria.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailea.
- Nafarroako Ospitaleguneko kudeatzailea.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendariordea.

Nafarroako Ospitaleguneko kudeatzaileak alegazioak aurkeztu ditu Kontuen Ganberak emandako epean. Alegazio horiek, zeinek ez baitute aldaketarik ekarri gure txostenean, Ganberak haiei emandako erantzunarekin batera, behin betiko txostenari erantsi zaizkio.

II. NAFARROAKO OSPITALEGUNEKO FARMAKOEN KUDEAKETA

Farmakoak substantzia organiko zein inorganiko, natural zein sintetikoak dira, organismo bizi batean aldaketa anatomiko edo funtzionalak sortzeko gai direnak. Gaixotasun edo min baten eraginei aurrea hartzeko eta haiek sendatzeko edo/eta arintzeko balio dute.

Sendagaien eta Osasun Produktuen Bermeei eta Erabilera Arrazionalari buruzko uztailaren 26ko 29/2006 Legearen arabera, honako kategoria hauek jo daitezke farmakotzat: giza erabilera-rako edo albutariek erabiltzeko medikamentuak, industrialki prestatuak edo haien fabrikazioan industria-prozesu bat dagoenean, formula magistralak, farmazia prestakinak eta lege horretan aurreikusitako prestakin bereziak.

Espanian, farmazia-gastua, ospitale esparruan, handitzen joan da, eta gaixo bakoitzeko 118 euroko gastua izatetik, 2014an, 140 euroko gastua izatera pasa da, 2016an, ondoren jasotzen dugun bezala:

	Biztanle bakoitzeko gastua ¹ (eurotan)			Aldea, % 2016/2014
	2014	2015	2016	
Andaluzia	91,34	116,64	107,87	18
Aragoi	122,98	153,88	152,37	24
Asturias	134,92	175,33	167,94	24
Balearrak	109,41	149,02	134,27	23
Kanariak	100,35	123,49	118,57	18
Kantabria	138,03	186,00	147,37	7
Gaztela eta Leon	111,13	147,47	137,36	24
Gaztela-Mantxa	101,72	122,04	119,07	17
Katalunia	109,04	137,90	134,26	23
Extremadura	122,83	145,48	142,74	16
Galizia	121,58	158,86	137,40	13
Madril	113,99	147,32	134,47	18
Murtzia	110,47	134,73	133,48	21
Nafarroa	129,82	152,00	153,54	18
EAE	105,27	123,28	129,91	23
Errioxa	149,66	190,47	167,56	12
Valentziako Erkidegoa	141,14	174,74	158,30	12
Nazio mailako batez besteko gastua	118,45	149,33	139,79	18

Iturria: geuk prestatua, Osasun Ministerioak, Gizarte eta Berdintasun Zerbitzuek eta Estatistikako Institutu Nazionalak emandako datuekin.

Nafarroa farmakoetan biztanle bakoitzeko gastu gehien duen laugarren erkidegoa da. 2016an ehuneko 18ko igoera gertatu da 2014ko gastuarekin alderatuta, 130 eurotik 154 eurora hain zuzen, eta batez besteko nazionalaren gainetik kokatu da.

¹ Gastua Osasun Sistema Nazionaleko ospitaleetan eta osasun laguntzako eta laguntza soziosanitarioko zentroetan funts publikoekin finantzaturako medikamentuek sortutakoa da.

II.1. NAFARROAKO OSPITALEGUNEKO FARMAKOEN GASTUAREN BILAKAERA

Ondoren azaltzen duguna da 2015ean eta 2016an O-NOZeko ospitale zentroetan farmakoetan aitortutako aurrekontu-gastua:

	2015		2016		2016/2015 aldea (%)
	Kopurua	Gutzizkoaren gaineko %	Kopurua	Gutzizkoaren gaineko %	
Nafarroako Ospitalegunea	76.049.475	85	79.466.474	85	4
Tuterako Reina Sofia Ospitalea	11.126.003	13	11.596.922	13	4
Lizarrako García Orcoyen Ospitalea	1.899.964	2	2.066.470	2	9
Guztira	89.075.442	100	93.129.866	100	5

Ikus daitekeen bezala, 2016an gastua 93 milioi eurokoa izan zen, 2015ekoarekin alderatuta ehuneko bost gora egin ondoren. Gastu horretatik, aipagarriena, bi urteetan, Nafarroako Ospitalegunea da, gutzizkoaren ehuneko 85 giten baitu.

Zehazki, honako hau izan zen Nafarroako Ospitaleguneke aurrekontu-gastuaren bilakaera 2012-2016 aldian:

	2012	2013	2014	2015	2016
Nafarroako Ospitaleguneke guztizko gastua	411.943.649	390.539.305	402.438.361	419.711.695	442.609.339
1. kapitulua gastu guztien gainean (%)	57	60	60	58	59
2. kapitulua gastu guztien gainean (%)	38	38	39	40	40
6. kapitulua gastu guztien gainean (%)	5	2	1	2	1

Gastuaren kapituluz kapituluko banaketa antzekoa da aztertutako aldi guztian; zehazki, 2. kapituluan (zeinean farmakoek gastua erregistratzen baita), Nafarroako Ospitaleguneke gastu osoaren ehuneko 39 da. Honako hauek dira 2. kapituluko gastuaren osagaiak

	2012	2013	2014	2015	2016
Nafarroako Ospitaleguneke 2. kapituluko gastua, guztira	156.002.966	146.702.283	155.752.281	169.307.939	177.597.854
Farmakoek 2. kapituluko gastuaren gainean (%)	47	44	43	45	45
Material sanitarioa 2. kapituluaren gainean (%)	14	15	16	15	16
Protesiek 2. kapituluaren gainean (%)	9	9	11	10	11
Produktu kimikoek 2. kapituluaren gainean (%)	9	9	8	8	8
Gainerakoak 2. kapituluko gastuaren gainean (%)	21	23	22	22	20

2. kapituluko gastu osoaren ehuneko 45 inguru farmakoei dagokie aztertutako aldian; ondotik honako hauek datoz: material sanitarioak sortutako gastua, ehuneko 15; protesiak, ehuneko hamar, eta laborategiko produktu kimikoak, ehuneko zortzi. Kapituluake gainerakoa bestelako gastuei dagokie, eta ez du ehuneko bosta inolaz ere gainditzen.

Farmakoek erosketaren prezio unitarioei dagokienez, horri buruzko araudi bat badago, zeinak Laborategiko Salmentako Prezio (LSP) bat ezartzen baitu; prezio hori ez da inolaz ere gainditu behar. Gainera, defizita gutxitzeko 2010eko araudiak nahitaezko beherapen orokor bat ezartzen du, ehuneko 7,5ekoa, generikoak ez diren medikamentuen erosketetan; horretan, salbuespena dira, beraz, generikoak eta erreferentziako prezio-sistemaren aplikazioak ukitutakoak; bestetik, "medikamentu zurtzei" (gaixotasun arraroetarako erabiltzen direnak) aplikatzen zaien beherapena ehuneko laukoa izanzen dela ezarri zen. Geroztik, 2011ko araudiak, generikoak ez diren medikamentuetarako beherapena ehuneko 15era handitu zuen. Aurrekoaz gainera, laborategiekin negoziatutako beherapen komertzialak egon daitezke.

II.2. NAFARROAKO OSPITALEGUNEAN FARMAKOEN KUDEAKETAN PARTE HARTZEN DUTEN ERAGILEAK

Ondoren azaltzen dugu zein den Nafarroako Ospitaleguneko farmakoen kudeaketarako antolamendu-egitura, bai eta hartan parte hartzen duten langileak ere:

Nafarroako Ospitaleguneko Farmazia Zerbitzua

Farmazia Laguntzari buruzko 12/2000 Foru Legeak ezarri zuen zein den ospitaleetan eta zentro soziosanitarioetan farmazia-zerbitzuen bitartez emanen den farmazia-laguntza, eta eginkizunak esleitzen zaizkie; txosten honen 1. eranskinean jaso ditugu. Laburbilduz, erabil daitezkeen sendagaiak hautatu, eskuratu eta emateko ardura ematen zaie, bai eta haiek geroztik banatzekoa ere.

Nafarroako Ospitalegunea batu aurretik, honako hauetan zeuden farmazia-zerbitzuak: Nafarroako Ospitalea, Bideko Ama Birjina Ospitalea eta Ubarmin Klinika. Nafarroako Ospitaleguneko Farmazia Zerbitzuaren bateratzea 2014an hasi zen, Gida Farmakoterapeutiko bateratu bat sortuz (funtsean Nafarroako Ospitalegunean erabiltzeko onartu diren medikamentuen deskribapen bat da); ondotik, preskripzio edo baliozkotze farmazeutikoko sistemak bateratu ziren eta, 2015ean zehar, kudeaketarako programa bakarrerako (SAP-MM Almacenes) migrazioa egiten joan zen. 2016ko urtarrilean hasi zen lanean programa hori. Gaur egun, bateratzeko gelditu diren prozesu batzuk badaude, nola baita biltegiaren kudeaketarekin lotutakoa.

Gainera, nabarmendu beharra dago Nafarroako Ospitaleguneko Farmazia Zerbitzuak garapen propioko aplikazio informatiko bat (FarHo) baduela, zeinak gaur egun aukera ematen baitu gaixoak erabilitako farmako ia guztien (ehuneko 97) kostua esleitzeko. Egitate horrek berarekin dakar informazio ugari edukitzea, aukera ematen duena gaixotasun motaren, espezialitatearen eta abarrekoen araberrako gastua xehetasunez analizatzeko.

Aipatutako programa informatikoak, historia klinikoarekin eta aurrekontu-kontabilitateko SAP moduluarekin batera, gaur egun integratuta daude edo integratzeko fase aurreratu batean daude.

Nafarroako Ospitaleguneko Farmazia Zerbitzuaren oroitidazkiaren arabera, haren langileak 84 ziren 2016an; hona hemen xehetasunak:

Lanpostua	Lanpostu kopurua
Farmazialaria	15
Egoiliarak	11
OLT-EUD*	19
Osasun laguntzaileak**	28
Administrari laguntzaileak	5
Zeladoreak	6
Guztira	84

* Guztizkotik, 13 langilek lanaldi osoa dute eta seik lanaldiaren erdia.

** Guztizkotik, 24 langilek lanaldi osoa dute eta lauk lanaldiaren erdia.

Nafarroako Ospitaleguneko Kontabilitate-kudeaketaren eta Fakturazioaren Atala

Atal honen ardura da aurrekontu-kontabilitatean erregistratzea farmakoen fakturetatik heldutako gastua eta zenbait abonamendurekin lotutako ordainketa-gutunak egitea.

O-NOZeko Farmazia Zuzendariordeztza

171/2015 Foru Dekretuak O-NOZen estatutuak onetsi zituen, eta lehenbiziko aldiz Farmazia Zuzendariordeztza bat ezarri zuen, honako funtsezko helburu honekin: Nafarroako osasun sistema osoaren (oinarrizko osasun laguntza eta laguntza espezializatua) zuzendaritza teknikoa eta farmazia-erosketak zentralizatzea. Zuzendariordeztza horren eginkizun zehatzak txosten honekin batera doan 2. eranskinean zehaztu dira.

Zuzendariordeztza horrek 31 lanpostu dauzka; horietatik, erdiek izaera administratiboa dute eta gainekoak, berriz, profil teknikoa.

O-NOZeko Farmazia Batzorde Zentrala

42/2016 Foru Aginduak batzorde hori sortu zuen 2010eko Sendagaiak Zentzuz Erabiltzeko Aholku Batzorde Teknikoaren ordezt, eta ia eginkizun berak esleitu zizkion, hain zuzen ere 3. eranskinean azaltzen direnak, eta Farmazia Zuzendariordeztzari atxiki zitzaion; eginkizun horiek honela laburbildu daitezke: O-NOZi aholkua ematea gaur egun garrantzi berezia izan dezaketen erabaki batzuetan, medikamentu berrien konplexutasuna eta aurrekontuan duten eragin handia direla eta.

Batzorde hori profil teknikoko 15 pertsonak osatzen dute, oinarrizko osasun laguntzaren eta laguntza espezializatuaren arloetakoak.

II.3. NAFARROAKO OSPITALEGUNEKO FARMAZIA ZERBITZUAREN JARDUERA

Honako hauek dira Nafarroako Ospitaleguneko Farmazia Zerbitzuaren jardueraren arloak:

- *Baliozkotze farmazeutikoa*: ingresatuta dauden gaixoei eta gaixo anbulatorioei preskribituko medikamentuak (eguneko ospitaleko gaixoak eta kanpoko gaixoak, dauzkan ezaugarri bereziak direla-eta oinarritzko osasun laguntzan ezin eman daitekeen medikamenturen baten bila doazenak), zerbitzu horrek baliozkotu behar ditu, eta horrek bere baitan biltzen ditu azterketa farmakoterapeutikoa eta preskripzio medikoak direla-eta behar diren esku-hartze farmazeutikoak. Hurrengo taulak jardueraren atal horrekin lotutako adierazle batzuen bilakaera erakusten du:

Jardueraren adierazlea	2015	2016	2016/2015 aldea, %
Ospitaleratutako gaixoen baliozkotzeak	795.648	739.148	-7
Baliozkotu beharreko esku-hartze farmazeutikoak	110.526	102.167	-8
Artatutako kanpoko gaixoak	5.721	6.675	17
Kanpoko gaixoei emandakoak	27.559	31.750	15
Nafarroako Ospitaleko Eguneko Ospitaleko gaixoak	3.082	4.349	41
Nafarroako Ospitaleko Eguneko Ospitaleko zikloak*	22.440	28.622	28

* 2015eko abuztuan, Bideko Ama Birjina Ospitaleko Hematologia Zerbitzuko gaixoak kontabilizatzen hasi ziren.

Ospitaleratutako gaixoen arretarekin lotutako jardueraren atal hori behera egiten ari da, eta garrantzi berezia hartzen ari da gaixo anbulatorioekin lotutakoa, zeinak iguera-portzentaje aipagarriak baitauzka.

- *Nahasteak prestatzea*: aldeztu aurretiko manipulazioa eta hainbat lehengairen nahasteen prestakin injektagarriak ematea (esate baterako, kimioterapietarako prestakinak). Honako hauek dira jardueraren atal horrekin lotutako adierazleak:

	2014		2015		2016		2016/2014 aldea (%)	
	Kopurua	Zenbatekoa €	Kopurua	Zenbatekoa €	Kopurua	Zenbatekoa €	Kopurua	Zenbatekoa €
Gaixo anbulatorioen-tzak nahasteak	42.601	17.843.921	48.502	20.663.094	50.703	25.169.884	19	41
Ospitaleratutakoentzako nahasteak	25.788	2.4374.557	37.214	2.667.294	43.862	3.463.324	70	46
Guztira	68.389	20.218.478	85.716	23.330.388	94.565	28.633.208	38	42

Funtsean gaixo anbulatorioekin lotuta dagoen jardueraren atal horretan, zeinak gastu aipagarria baitakar, gora egiteko joera handia dago.

- *Farmacoteknia (formulak prestatzea)*: lehengai batzuekin zenbait manipulazio egin behar dira, haiei forma egokia emateko eta haiek eman ahal izateko aurrez ezarritako edo preskribatutako dosien eta jarraibideen arabera. Honako hau da egindako jardueraren:

Prestaketa	2015ean, guztira	2016an, guztira	2016/2015 aldea (%)
Kapsulak	1.631	1.018	-38
Enemak	177	136	-23
Tantak eta kolirioak	2.740	2.695	-2
Xiringak	5.092	4.012	-21
Hautsak/Paperak	10	6	-40
Pomadak	152	236	55
Soluzio esterilak	1.399	1.354	-3
Bideak	3.022	2.428	-20
Ahozko soluzioak	296	2.384	705
Soluzio topikoak	412	3.694	797
Guztira	14.931	17.963	-20

- *Beste jardueraren batzuk*: aurreko guztiaz gainera, Farmazia Zerbitzuak beste jardueraren batzuk egiten ditu: medikamentuak ematea eta haien banaketa logistikoa egitea, farmakoterapiako aholku-eginkizunak, irakaskuntza, farmakoen kudeaketarekin lotutako lan administratiboak, farmako batzuk berriz ontziratzea gaixoentzako dosi unitarioetan banatu ahal izateko, entsegu klinikoak, eta abar

III. HELBURUAK, NORAINOKOA ETA MUGAK

Honako hauek izan ziren lan honen helburuak:

- Nafarroako Ospitaleguneko gastuaren farmakoen kontsumoaren bilakaerari buruzko analisi bat egitea, 2012-2016 aldiari dagokionez.
- Nafarroako Ospitalegunean farmakoak kudeatzeko prozedura berrikustea, preskribatzen direnetik hasi eta haien birjartzeraino, horren barne dela horretan inplikaturako aplikazio informatiboen analisia.
- Nafarroako Ospitalegunean farmakoak erosteko prozedurak araudiaren arabekoak diren aztertzea.
- Gerta daitezkeen abonamenduen eta beherapenen kudeaketa ebaluatzea.
- Farmakoen lagin bat erosteko erabilitako prozedura eta haiekin lotutako fakturen egokitasuna egiaztatzea.

Helburu horiek lortzeko, honako informazio hau landu eta aztertu dugu:

- Nafarroako Ospitaleguneko gastu osoaren, haren kapituluz kapituluko osagaien eta farmakoen gasturako aurrekontu-partida zehatzaren aurrekontu-betetzeak, 2012-2016 aldian.
- Nafarroako Ospitalegunea osatzen duten hiru zentroetan (Nafarroako Ospitalegunea, Bideko Ama Birjina Ospitalea eta Ubarmin Klinika) farmakoen kudeaketari aplikaturako prozedura, erosten denetik, preskripzioa, dispensaziora eta birjartzera bitarte.
- Farmakoen erosketan erabilitako kontratazio-prozedurak eta haiek direla-eta artxibatutako dokumentazioa.
- Farmakoei esparru horretan aplikatzekoa zaien araudia.
- Guztizko gastuaren ehuneko 65 (50,1 milioi euro) egiten duten 65 farmakoen lagin bat: haiek eskuratzeko erabilitako prozedura eta haien kudeaketari buruzko fakturen lagin bat berrikusi ditugu.
- Nafarroako Gobernu Kontu-hartzailatza Nagusiak farmakoen erosketari buruz egindako barne kontroleko txostena.
- Nafarroako Ospitaleguneko Farmazia Zerbitzuaren oroitidazkiak, 2015. eta 2016. urteetarako.

Lana egin da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauetara jarraituz, eta, funtsean, betetzeari buruzko fiskalizazioei dagokien laugarren mailako ISSAI-ES araua, bigarren eta laugarren mailakoak, aplikatu dira, eta, zehatzago, partida zehatz baten berrikuspenari dagozkionak, eta farmakoen erosketari buruzko analisiaren betetzeari buruzkoak.

Lanaren helburuak direla-eta bi muga aurkitu ditugu; honako hauek, hain zuzen ere:

- SAP-MM Almacenes aplikazio informatikoa, farmakoen biltegiak eta, horrenbestez, stockak, kudeatzen dituen, 2016ko urtarrilean hasi zen erabiltzen Nafarroako Ospitalegunean; stocken kopuruek ez digute behar besteko ebidentziarik eman farmakoen kontsumoa zenbatesteko; horrenbestez, ezin dugu horri buruzko iritzirik eman.
- Farmakoen laginean jasotako kasu batzuetan, ez dugu behar adina informazio eduki egindako abonamenduen egokitasuna egiaztatzeko; halere, berrikusitako kasu guztietan, hurbil daude kasuko laborategiarekin itundutakotik.

Bestetik, eta muga bat izan gabe, nabarmendu nahi dugu farmakoen erosketari buruzko araudiaren egokitasuna dela-eta egin dugun azterketan, medikamentu eskusibo batzuk identifikatzeko egindakoan —hornitzaile bakar bati baizik ezin eros daitezkeenak—, Farmazia Zerbitzuak emandako informazioan oinarritu gara, hura egiaztatzeko behar adina datu ez bagenuen ere.

IV. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Egindako lanaren ondorio nagusiak aurkezten ditugu atal honetan, bai eta antzeman diren hutsuneak hobetzeko egokitzat jotzen ditugun gomendioak ere.

IV.1. FARMAKOEN GASTUAREN ETA KONTSUMOAREN BILAKAERA NAFARROAKO OSPITALEGUNEAN (2012-2016)

Farmakoen arloko gastuaren analisia

Hurrengo taulak Nafarroako Ospitaleguneko farmakoen aurrekontu-gastuaren bilakaera, 2012-2016 aldiari dagokiona, erakusten du:

	2012	2013	2014	2015	2016	Aldea, % 2016/2012	2016/2015 aldea (%)
Nafarroako Ospitaleguneko farmakoak, guztira	73.195.774	64.816.439	66.753.443	76.049.475	79.466.474	9	4
Farmakoen gastua/2. kapitulua (%)	47	44	43	45	45	-4	0
Farmakoen gastua/Nafarroako Ospitaleguneko guztizko gastua (%)	18	17	17	18	18	0	0

Aztertutako aldiaren, farmakoen batez besteko gastua 72 milioi eurokoa izan zen. 2013an behe-rakada bat izan zuen, eta gero berriz ere igo zen, besteak beste medikamentu berriak erabiltzearen ondorioz —esate baterako C hepatitiserakoa, 2015ean—. Aldi horretan, farmakoek Nafarroako Ospitaleguneko gastuaren ehuneko 18 egiten dute, gutxi gorabehera.

Urtetik urtera izandako aldeak baloratzeko, kontuan hartu beharra dago urtero farmakoengatik sortutako gastu desberdina izan daitekeela erreala aurrekontuan aitortutako gastutik, zeren eta, batzuetan, urte bateko gastua hurrengo ekitaldira eramaten baita. Hartara, egiaztatu dugu 2016an 2015eko gastuak kontabilizatu zirela, 2,67 milioi eurokoak, eta 1,1 milioi euroko gastuak erregistratzeari utzi zitzaizkion. Azkeneko horiek 2017ko aurrekontuari egotzi zitzaizkion. Aurreko urteetarako, ezin izan dugu informazio hori lortu.

Aztertutako aldiaren 198 hartzekoduni erosi zitzaizkien farmakoak, hurrengo taulan ikus daitezkeen bezala:

	2012	2013	2014	2015	2016
Hartzekodunen kopurua	197	197	196	200	198
Hartzekodunen kopurua > 3 milioi euro	6	6	6	6	6
Hartzekodunen gastua > 3 milioi euro, % / guztizko gastua	50	50	49	48	47

Nabarmendu behar dugu urte bakoitzeko hartzekodunen ehuneko hiruk, aztertutako aldi osoan, farmakoen arloko gastuaren ehuneko 50 metatzen dutela, urtean hiru milioi euro baino gehiago fakturatuz.

Bestalde, farmakoetan egindako gastuaren bilakaera baloratzeko, kontuan hartu beharra dago etengabe aurrerakuntzak gertatzen direla gaixotasunei buruzko ikerketan eta tratamenduan; horri bizi-esperantza igoera igota, nabarmen handitu da farmakoen erabilera ospitale ingurunean; horrek eragin aipagarria du produktu horien erosketan, patologien eta artatutako gaixoen araberak. Ondoren, Nafarroako Ospitaleguneko Farmazia Zerbitzuaren oroitidazkietan jasotako adierazle batzuk erakusten ditugu, baieztapen horien argigarri:

- *Farmakoetan gastu handiena duten zerbitzuak.* Farmakoen arloko gastu handiena, Nafarroako Ospitaleguneko zerbitzuz zerbitzu:

Farmakoetan gastu handiena duten zerbitzuak	Gastua 2015ean	Gastua 2016an	2015/2016 aldea (%)
Onkologia Medikoa	14.132.187	13.691.464	-3
Hematologia	7.657.162	11.499.741	50
Digestiboa	13.071.822	9.837.910	-25
Barne Medikuntza	9.384.515	9.324.076	-1
Erreumatologia	9.097.240	9.073.283	-0,3
Neurologia	8.261.092	6.687.312	-19
Pediatria	1.867.733	3.751.279	101
Guztira	63.471.751	63.865.065	1
Farmakoen guztizko gastuaren gainean (%)	83	80	-4

Aurreko zerbitzuek guztizko gastuaren ehuneko 80 inguru egiten dute. 2016an, nabarmentze-koak dira Onkologia eta Hematologia zerbitzuak, guztizkoaren ehuneko 32 egiten baitute. Halaber, 2015ean, Digestio Zerbitzuak egin zuen gastu handiena, eta ondotik Onkologiakoa dator, C hepatitisaren tratamendua dela eta; 2016an, gaixotasun horren tratamendua merkatzea lortu zen, portzentaje handi samar batean (guztizkoaren ehuneko 54raino, Farmazia Zerbitzuaren oroitidazkiaren arabera); horixe da haren garrantzia guztizkoan jaitsi izanaren arrazoia. Pediatria eta Hematologia zerbitzuen igoeraren arrazoia izan daiteke, halaber, gastuaren portzentaje handi bat gaixoari —eta, horrenbestez, kasuko zerbitzuari— egozte lortu zela.

- *Gastuaren banaketa ospitaleratutako gaixoen eta gaixo ambulatorioen artean.* Beste datu garrantzitsu bat da ospitaleratutako gaixoei eta gaixo ambulatorioei bideratutako gastuaren ehuneko, zeina ondoren jasotzen baitugu:

	2015	2016
Gaixo bakoitzari esleitutako farmakoen arloko gastua, %	90	97
Ospitaleratutako gaixoen gastua, %	9	13
Ospitaleratu gabeko gaixoen gastua, % (eguneko ospitalea, kanpoko gaixoak)	91	87

2016an, gaixoari esleitutako gastuaren ehuneko 87 (haren ia guztia) gaixo ambulatorioei zegokien eta ehuneko 13, berriz, ospitaleratutako gaixoei; zenbateko horiek berresten dute aurreko puntuan zerbitzuagatiko gastuaren banaketa dela-eta eman ditugun datuak, zeren eta onkologiako eta hematologiako gaixoak nagusiki modu ambulatorioan artatzen baitira. Nabarmentzekoa da informazio hori lortzea posiblea dela aurrez aipatu den gaixo bakoitzeko gastuaren esleipenari esker.

- *Gaixotasun arraroengatiko farmazia-gastuaren analisia.* Gaixotasun horiek artatzeko bideratutako farmakoen gastua guztizkoaren ehuneko bederlatzi izan zen 2016an, 168 gaixorentzat, eta ehuneko zazpi berriz, 2015ean, 103 gaixorentzat, hurrengo taulan ageri den bezala:

Erabilitako medikamentua	2015			2016		
	Paziente kopurua	Gastua	Gastua/gaixoa	Paziente kopurua	Gastua	Gastua/gaixoa
Soliris	2	691.651	345.826	2	625.891	312.946
Remodulin	6	933.962	155.660	4	1.151.124	287.781
Elaprase	1	574.498	574.498	2	354.363	177.182
Naglazyme	1	249.799	249.799	2	307.556	153.778
Replagal	4	698.729	174.682	4	604.701	151.175
Factor VIII	20	1.351.263	67.563	13	1.813.998	139.538
Fabrazyme	1	66.647	66.647	1	124.392	124.392
Aldurazyme	2	246.208	123.104	2	227.994	113.997
Orfadin	2	120.754	60.377	2	201.547	100.774
Vimizum	-	-	-	1	78.676	78.676
llaris	-	-	-	1	74.074	74.074
Nplate	-	-	-	2	144.549	72.275
Benefix	1	4.817	4.817	1	55.392	55.392
Mepact	-	-	-	2	86.301	43.151
Votubia	5	121.172	24.234	2	82.844	41.422
Vyndaquel	-	-	-	1	32.480	32.480
Adempas	-	-	-	1	23.776	23.776
Kuvan	3	74.700	24.900	2	36.062	18.031
Volibris	-	-	-	20	264.153	13.208
Tobi Podhaler	3	39.662	13.221	3	37.329	12.443
Prolastina	-	-	-	4	44.598	11.150
Ventavis	-	-	-	1	8.953	8.953
Firdapse	-	-	-	2	17.836	8.918
Cayston	3	24.960	8.320	5	37.440	7.488
Esbriet	-	-	-	7	49.474	7.068
Firazyr	15	35.538	2.369	15	89.691	5.979
Revatio	-	-	-	38	174.293	4.587
Diacomit	-	-	-	2	7.294	3.647
Beriner	11	7.542	686	8	15.296	1.912
Wilzin	17	13.918	819	18	11.869	659
Trypsone	4	296.945	74.236	-	-	-
Hemoeven	1	11.253	11.253	-	-	-
Fibrogammin	1	3.803	3.803	-	-	-
Guztira	103	5.567.821	54.057	168	6.783.946	40.381

Ikusten den bezala, gaixotasun arraro batzuen gaixo bakoitzeko tratamendua nabarmen altua da, eta horrek eragina izan dezake gastuaren osotasunean, honako hauen arabera: diagnostikatutako gaixoen kopurua, farmakoen prezioak, entsegu klinikoak dauden ala ez dauden, eta abar.

Farmakoen arloko kontsumoaren analisia

Farmakoen erosketan egindako gastuarenaz gainera, gure lanaren beste helburu bat kontsumoa aztertzea izan zen. Nafarroako Ospitalegunearen Farmazia Zerbitzuaren oroitidazkiak adierazle hori jasotzen du, eta hura kalkulatu du farmako bakoitzaren hasierako eta amaierako stockak kontuan hartuz. Farmakoen kudeaketarako prozedura aztertu ondoren (IV.2 atala), ondorioa da zenbateko horiek ez digutela behar adinako ebidentziarik ematen fidagarritzat jotzeko; hori dela eta, ezin izan dugu farmakoen kontsumoa zenbatetsi aztertutako aldiari.

IV.2. NAFARROAKO OSPITALEGUNEKO FARMAKOEN KUDEAKETARAKO PROZEDURA

Txosten honen 4. eranskinean jaso duguna da Nafarroako Ospitaleguneko zentroetan farmakoak kudeatzeko prozedura (zenbait irudi ageri dira banaketa, hornidura eta fakturazioa analizatzeko); funtsean, honako prozesu hauetan laburbiltzen da:

- *Farmakoak eskatzea* Farmazia Zerbitzuari. Hiru bidetatik egin daiteke: preskripzio medikoa (ospitaleratutako gaixoak eta gaixo ambulatorioak); farmakoak birjartzeko eskaerak, plantetako, ebakuntza-geletarako eta arreta espezializatuko kontsultetarako; eta eskuzko eskaerak, botikinean medikamenturen bat falta izateagatik ordutegi jakin batzuetatik kanpo, larrialdietako gaixoentzako farmakoetarako, ordu jakin batzuetan behaketan edo ospitalerata dauden gaixoentzako medikamentuetarako eta ZIUko medikamentuetarako. Azken kasu horretan, birjartzerako deskarga automatikoa ezarri berri da, Dispensación-SAD sistema automatizatuen minimoen sistema baten arabera.

- *Preskripzioen baliozkotzea*: preskripzio mediko guztiak Farmazia Zerbitzuko farmazialariek baliozkotu behar dituzte FarHo delakoaren bidez. Botikinerako farmakoak edo eskuzko eskaerak ez dira prozesu horren bitartez egiten, plantetan ingresatuta dauden gaixoentzako preskripzioak izan eta prozesu estandarra jarraitu ez dutenen salbuespenarekin; halere, espezialitate bakoitzetarako ezarritako katalogo batzuk badaude, zeinetan eskatzen diren produktuak eta haien gehieneko zenbatekoak mugatzen baitira.

- *Dispentsazioa*: prozesua eta erabilitako aplikazio informatikoak desberdinak izaten dira, egin den eskaera motaren arabera, betiere parte hartzen duten langileen arabera.

- *Dispentsazioen itzulketa*: prozeduraren fase hori eskaeraren jatorriaren arabera aldatzen da.

- *Dispentsazioei buruzko informazioa iraultzea FarHo eta SAP-MM Almacenes aplikazioen artean*: prozesu hori egunaren amaieran egiten da preskripzioen kasuan (estupefazianteen kasuan izan ezik; izan ere horien datuak aldi berean iraultzen dira), modu automatikoa SAP-MM Almacenes aplikazioan, botikinen, ebakuntza-gelen eta laguntza espezializatuko kontsulten kasuan, ZIUen kasuan eta larrialdien kasuan, eta eskuz gainerako kasuetan.

- *Laborategiei eskaerak egitea*: farmakoak eskatzeko prozesua desberdina da aintzat hartzen dugun medikamentu motaren arabera: Gida Farmakoerapeutikoan sartutakoak, estupefazianteak, atzerriko medikamentuak eta erabilera zabaleko medikamentuak (merkataritzza baimenik ez duten medikamentuak dira, baina haien entsegua jada amaituta dago eta jotzen da gaixoentzat oso baliagarria izan daitekeela).

Gidako medikamentuen (gehienak dira) eta estupefazianteen kasuan, eskaerak egiteak berekin dakar kasuko hornitzaileak eskaera hori aldi berean jasotzen duela.

- *Farmakoak jasotzea*: biltegi bakarra ez dagoenez, toki faltagatik, Nafarroako Ospitaleguneko zentro bakoitzean harrera-gune bat badago, eta prozesua eta hartan parte hartzen duten langileak desberdinak dira kasu bakoitzean.

- *Farmakoak SAP-MM Almacenes aplikazioan sartzeari buruzko erregistroa*: oro har, prozesu hori antzekoa da Nafarroako Ospitalegunea osatzen duten hiru zentroetan.

- *Fakturen baliozkotzea*: Farmazia Zerbitzuko pertsona bat da Nafarroako Ospitaleguneko faktura guztien kontabilitatera pasatzea baliozkotzeko ardura duena, besteak beste honako alderdi hauei erreparatuta: faktura, albarana, prezioak abonamenduak eta abar. Prozesua desberdina izaten da, FACE² (Estatuko faktura elektronikoetarako sarrera puntu orokorra) bidez jasotako faktura automatikoki SAP-MM Almacenes sarrerako bandejan sartzen den ala ez; halaber, desberdina da faktura paperean iristen denean, nahiz eta prozesu hori bazterrekoa izan, zeren eta modu horretara jasotako dokumentuak guztizkoaren ehuneko bat inguru baitira.

- *Fakturak aurrekontuan kontabilizatzea*: prozesuaren atal hori Kontabilitate-kudeaketaren eta Fakturazioaren Ataleko langileek egiten dute, egiaztatu ondoren fakturak Farmazia Zerbitzua zu-

² Gaur egun, fakturen ehuneko 99 FACE bidez iristen da.

zentzen duen pertsonak eta Nafarroako Ospitaleguneko Kudeaketa Ekonomikoaren zuzendaritzaz arduratzen den pertsonak sinatuta daudela.

Prozedura hori aztertuta, honako alderdi hauek nabarmentzen ditugu:

- Dispentsazioei buruzko datuak (estupefaziantei buruzkoak izan ezik) egunaren amaieran iraultzen dira automatikoki FarHo aplikaziotik SAP-MM aplikaziora, eta horrek berekin dakar stockei buruzko informaziorik ez edukitzea denbora errealean, aplikazioen artean datu kopuru handi baten transmisioari buruzko arrazoi tekniko informatikoak direla eta.

- SAP-MM Almacenes aplikazioak produktuen beharrak identifikatzeko prestazio bat badaukan arren, plangintza hori eskuz egiten da eskaeren datu historikoekin eta apalategietan bertatik bertara egindako berrikuspenekin; gainera, Nafarroako Ospitalean (Nafarroako Ospitalegunean gastu handiena duen zentroa) ez da erreferentziako gutxieneko eta gehieneko stockik ezarri, Farmazia Zerbitzuan gaur egun langileek denborarik ez dutelako eta eginkizun horietaz arduratuko den arduradun logistikorik ez dagoelako.

- Laborategiek iraungitako medikamentuen itzulketa onartzeko betebeharrak ez dagoen arren, ohiko jokabidea da haiek onartzea eta kopuru batzuk itzultzea, dirutan nahiz espeziatan. Aukera hori dagoen arren eta SAP-MM Almacenes aplikazioak iraungitzeak kontrolatzea aurreikusten duen arren, Nafarroako Ospitaleguneko zentro bakarrean ere ez da horren jarraipen automatizaturik egiten eta, oro har, eskuzko berrikuspen eraginkorrik ere ez da egiten. Horrek eragin dezake produktu batzuk iraungitzea kontsumitu baino lehen, nahiz eta alderdi hori gaixoei dispentsatu baino lehen egiaztatzen den.

- Inongo zentrotan ere ez dago ezarririk prozedura bat aldizkako inbentarioak egiteko (salbu eta nahasteak prestatzeko erabiltzen diren farmakoetan, inbentarioa hileroko egiten baita, eta estupefazianteetan) SAP-MM Almacenesek ematen duen stockaren zenbatekoak zuzenak diren kontrolatzeko bidea ematen duenik, hura, kasua bada, zuzendu ahal izateko. Kasuan kasuan antzematen diren stockeko aldeak eskuz zuzentzen dira aplikazioan, aldearen jatorriari buruzko agiri bidezko egiaztapenik edo hura nola detektatu den jasota utzi gabe.

SAP-MM Almacenes aplikazioak izakinei buruz ematen dituen kopuruak arrazoizkoak diren ala ez egiaztatzeko, Nafarroako Ospitaleguneko (stock osoaren ehuneko 26, sistemaren arabera) eta Bideko Ama Birjina Ospitaleko³ (stock osoaren ehuneko 34, sistemaren arabera) zenbait farmakoren kontaketa fisikoa egin dugu, eta emaitzak aplikazioko zenbatekoekin alderatu ditugu; honako emaitza hauek lortu ditugu:

	Nafarroako Ospitalea	Bideko Ama Birjina Ospitalea
Stocka, sistemaren arabera (eurotan)	1.596.896	833.423
Stocka, kontaketa fisikoaren arabera (eurotan)	582.397	447.667
Aldea	-1.014.499	-385.756

Alde horiek gertatzeko zenbait arrazoi badaude: produktuen neurketan unitate-akatsak egotea; kopuruen hasierako kargan akatsak egotea (SAP-MM Almacenes aplikazioa 2016ko urtarriletik funtzionatzen du); laborategiei erregistratu ez diren itzulketak egitea; kanpoko gaixoei erregistratu gabeko medikamentu-dispentsazioak egitea; nahasteak berrerrabiltzea; zenbait dispentsazio ez erregistratzea, sistemak stockik ez dagoela adierazi duelako, eta abar.

Lortutako aldeak hain nabarmenak dira non ondorioztatzen baitugu aplikazioaren zenbatekoek ez dituztela izakinak fideltasunez islatzen; hori dela eta, txosten honen III. atalean adierazi den bezala, ezin izan dugu farmakoen kontsumoa aldi jakin baterako zenbatetsi.

- SAP-MM Almacenes aplikazioak aukera ematen die eskaerak egiteko baimenduta dauden pertsona guztiei farmako bakoitzaren baldintzen erregistroa (LSPa eta aplikatutako beheapenak) eta eskaera bakoitzaren baldintza berariazkoak aldatzeko, aldaketaren arrazoiak jasota uzteko betebeharrak gabe; gainera, aukera ematen du eskaerak egiteko baimen gehigarriak gabe, bolu-ena edo diru-zenbatekoa zein diren ere. Halaber, aurrekontu-kontabilitateko SAP moduluak au-

³ Ubarmin Klinikari ez dugu kontaktarik egin, zeren eta haren stocka, sistemaren arabera, Nafarroako Ospitaleguneko stock osoaren ehuneko 0,7 baizik ez baitzen.

kera ematen du faktura bat kontabilizatzeko, bera arestian aipatutako arduradunek sinatuta ez dagoenean ere.

Ganbera honen iritziz, aplikazioak bideratzen dituen aukera horiek ez dira egokiak, eta arrisku handi bat dira prozesuaren atal hori egoki kudeatzeko.

- Analizatutako prozesuaren honako eragiketa hauetan eginkizunen bereizketa desegokia dago: estupezko inbentarioa egitea eta haien dispentsazioa; eskaerak sartzeko zein salgaien sarrera erregistroa eta prezioen aldaketak.

- Faktura guztiak, kontabilitatera igorri baino lehen, baliozkotzeko ardura duen pertsonak prezioei buruz daukan informazio bakarra aplikazio informatikoan erregistratuta dagoena da, baina ez zaio informaziorik ematen dauden merkataritza-akordioei buruz; horrenbestez, ez daki zehazki fakturretan islatutako prezioak zuzenak diren ala ez, beherapen gehigarriak aplikatu behar diren, abonamenduak jaso behar diren, eta abar.

- FACE bidez jasotako fakturak formulario edo eredu baten bitartez sartzen dira, baina ez dira LSPa, finantzatutako prezioa edo prezioari aplikatutako beherapenak, legezkoak zein merkataritza-akordioak, bereiz aipatzen; horrek zaildu egiten du ezarritako prezio unitarioaren arrazoizkotasuna egiaztatzea. Horri dagokionez, nabarmendu beharra dago ezen Farmazia Zerbitzuak eskatu zutela SAP-MM Almacenes aplikazioan abonamenduak kudeatzeko modulu bat ezar zedila.

- Nafarroako Ospitaleko Farmazia Zerbitzuaren biltegiaren dimentsioa desegokia da, kudeatzen duen medikamentu-bolumenari begiratuz gero; esate baterako, bereizi gabe daude medikamentuen biltegia eta farmaziako langileek lan egiteko bulegoak. Gainera, produktuak antolatzeke irizpideak ez dira homogeenak, eta nahasteak eragin ditzakete.

Bestetik, inongo babes edo segurtasun neurri berezirik ez dago medikamentu garestienetarako.

- Kanpoko Gaixoen Unitatearen instalazioak eskasak dira eta erreforma urgente bat behar dute; halere, esan digutenaren arabera, haiek hobetzeko inbertsioen bat aurreikusi da.

IV.3. FARMAKOAK EROSTEARI BURUZKO ARAUDIA BETETZEA

Farmakoen erosketari buruzko araudiaren betetzea aztertzeko, kontuan hartu beharra dago sektore hori oso berezia dela, eta osasun-laguntzaren praktikan gaixoari arreta ematea lehenesten dela; hartara, hornitzaile bakar batek egindako medikamentu batzuk badaude, laborategiekin dauden akordioek medikamentu bat baino gehiago jaso ditzakete; une batean erabaki daiteke entsegu klinikoetan erabilitako produktu batzuk erabiltzea, eta abar.

Testuinguru horretan, Nafarroako Ospitaleguneak gaur egun bide bat baino gehiago erabiltzen du farmakoak erosteko. Ondoren zehazten ditugunak dira, haien aplikazioak 2016an egin duen gutxi gorabeherako zenbatekoarekin:

	Farmako kopurua	Gastua 2016	Gutzizkoaren gainean, 2016an
Zuzeneko erosketak: medikamentu esklusiboak	499	49.068.085	64
Zuzeneko erosketak: medikamentu esklusiboak, negoziazioarekin	91	16.912.148	22
Prozedura masiboa	294	2.635.745	3
Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalaren (INGESA) akordioei atxikitzea	9	1.811.706	2,1
Akordio edo negoziazioak	12	529.589	0,7
Zuzeneko erosketak: atzerriko medikamentuak	13	174.345	0,2
Gainerakoa	1.496	5.922.810	8
2016ko erosketak, guztira*	2.414	77.054.427	100

* 2016an sortutako gastuak baizik ez ditugu sartu, 2015etik heldu eta aurrekontu honi egotzi zaizkionak kanpo utzita.

Aurreko taula analizatu baino lehen, nabarmendu behar da ez dagoela akordioei buruzko erregistro informatikorik, ezaugarri nagusiak (indarraldia, baldintzak eta abar) jasotzen dituenik, eta farmakoen hornitzaileekin ez da beti kontraturik egiten; hori dela eta, lortu ditugun datuak gutxi gorabeherakoak dira, zeren eta hornitzaile bakoitzaren karpetan artxibatuta dagoen 2016ko dokumentazioa baizik ez baitugu berrikusi. Halaber, nabarmendu behar dugu medikamentu esklusiboek buruz ematen den informazioa Farmazia Zerbitzuak emandako informazioan oinarrituta dagoela. Ondoren azaltzen dugu prozedura bakoitzaren garapena:

- **Zuzeneko erosketak:** gastu handiena medikamentu esklusiboak erosteko erabiltzen den prozedura mota horri dagokio; izan ere, hornitzaile bakarrari erosi ahal zaizkion medikamentuak dira, eta justifikatuta dago horrela jokatzeko; halere, ez dago formalki dokumentatuta, Kontratu Publikoek buruzko Foru Legeak exijitutako izapideei jarraituz.

Gainera, baldintzak hornitzaileekin negoziatu ondoren ere eros daitezke medikamentu esklusiboak. Prozedura hori 91 medikamentu erosteko erabili da: guztizko gastuaren ehuneko 22 egin dute.

Atzerriko medikamentuen kasuan —gastuaren ehuneko 0,2 baizik ez dute egiten—, zuzeneko erosketak justifikatuta dago, zeren eta farmako horiek estatuko plataforma baten bitartez erosi behar baitira eta Estatuak zehazten duen hornitzaileari erosi behar baitzaizkio.

- **Prozedura masiboa:** 2015era arte, Farmazia Zerbitzuaren arduradunak medikamentu gehienak sartzen zituen prozesu horretan, akordio bidez formalizatutakoak kenduta; hau da, medikamentu esklusibo batzuk eskuratzeko ere erabiltzen zen. 2016tik aurrera, prozedura hori aplikatu zen soilik medikamentu aukeratu batzuetarako. Aukeraketa hori Farmazia Zerbitzuak egin zuen, farmako batzuen kasuan 2015eko baldintzak luzatuz.

Zehazki, prozedura hori honako hau izan da: Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuaren webgunean medikamentuen zerranda bat argitaratzea, aurreko urteko gastuarekin batera, eta laborategiei epe jakin batean eskaintzak eskatzea. Jasotako eskaintzak aztertzen dira, eta Farmazia Batzordeak medikamentu horien gida bat, erosteko prezioarekin, onesten du. Prezio hori bera izanen da O-NOZeko ospitale-zentro guztientzat. Onespen hori laborategi bakoitzarekin egindako kontratu batean formalizatzen ez den arren, kontratazioari buruzko araudian eskatutako printzipioak aplikatzen dira, oro har.

2015eko luzapenak kontua hartuta —sistema horren bidez 2015ean kontratatutako farmakoe-tarako detektatu direnak—, gehi 2016an eta 2017an prozedura horren bitartez eskainitakoak, prozesu hori 294 farmako erosteko aplikatu zen, eta horiek guztizko gastuaren ehuneko 3,4 egin zuten.

- *INGESAren esparru-akordioari atxikitzea*: Nafarroa INGESAren estatuko zenbait esparru-akordioari atxikita dago, eta horien bitartez Nafarroako Ospitaleguneak bederatzi medikamentu erosi zituen, 2016an guztizko gastuaren ehuneko bi egin zutenak.

- *Akordio formalak*: eskusiboak ez diren medikamentu batzuetarako, akordio bat dago eros-teko baldintzekin eta kontsumoagatiko abonamenduekin edo/eta kasuan kasu aplikatzekoak diren beherapenekin. Aurrez aipatu dugun bezala, 2016rako zegoen dokumentazio guztia aztertu dugu, eta identifikatutako akordioak 12 farmakori buruzkoak dira. Haien gastuak 2016ko guztizko gas-tuaren ehuneko 0,7 egin zuen.

Oro har, ez dago jasota hornitzaileekin negoziatu zen ala ez, nahiz eta medikamentuak esclu-siboak ez izan. Gainera, akordioak ez dira beti egoki formalizatzen, eta batzuetan kontu-hartzea eta aldeetako baten sinadura baizik ez dira ageri; alde hori, oro har, laborategia izaten da.

Nabarmendu behar dugu horiexek direla gutxienez ere 2016tik indarrean zeuden akordioak, baina beste batzuk egon daitezkeela, guk detektatu ez ditugunak, urte hori buruz kontsultatu dugun dokumentazioan ez zeudelako.

- *Gainerakoa*: gainerako 1.496 medikamentuak direla eta, zeinak ez baitira eskusiboak eta 5,9 milioi euroko gastua ekarri baitzuten (guztizkoaren ehuneko zortzi), ez dago jasota zein pro-zedura erabili den haiek erosteko, baina 1.252 farmako erosteko kopuruak 3.000 eurotik behera-koak izan ziren (486.488 euro, guztira); horrenbestez, kontratazioari buruzko araudiaren arabera, faktura baizik ez da behar.

Horrenbestez, Kontuen Ganberak uste du ezen, oro har, Nafarroako Ospitaleguneak arra-zoizko prozedura bat aplikatzen duela, medikamentuen negozioaren ezaugarri bereziak direla eta, medikamentu eskusiboak eta atzerriko medikamentuak erosteko (gastu osoaren ehuneko 86), baina ez ditu erosketa horiek formalki dokumentatzen, Kontratu Publikoei buruzko Foru Le-gean ezarritakoari jarraituz. Bestetik, ez dago jasota zein prozedura erabiltzen den 1.496 medi-kamentu erosteko, hain zuzen ere 5,9 milioi euro egin zutenak; alabaina, gastu horren ehuneko zortzik baino ez luke faktura beharko, kontratazioari buruzko araudiari jarraituz. Gastuaren gaine-rako ehuneko seian, Kontratuei buruzko Foru Legean ezarritako prozedurak aplikatu ziren, baina ez ziren, ezta ere, formalki dokumentatu, arau horrek eskatzen duen bezala.

Nabarmendu nahi dugu ondorio hauek Nafarroako Gobernuako Kontu-hartzaitza Nagusiak esparru hori buruz egin zuen txostenean erdietsitakoen antzekoak direla. Halaber, nabarmendu nahi dugu Farmazia Zuzendariorde gaur egun bidezkoak diren jarduketak egiten ari dela far-mako batzuen erosketak hobetzeko, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Foru Legea kontuan hartuta; izan ere, 2017ko otsailean, martxoan eta maiatzean hiru esparru-akordio lizitatu ziren sei medikamentutarako, eta horietarako urteko 0,6 milioi euroko zenbatekoa zenbatetsi zen.

IV.4. ABONAMENDUEN EDO/ETA BEHERAPENEN KUDEAKETARI BURUZKO ANALISIA

ABONAMENDU MOTAREN EDO/ETA BEHERAPENAREN ARABERA JARRAITUTAKO PROZEDURA.

Farmakoak erosterakoan, zenbait arrazoi tarteko, abonamenduak edo/eta beherapenak egon daitezke, eta halakoetan bestelako prozedura bati jarraitu behar zaio, ondoren azaltzen dugun bezala.

- *Farmakoen iraungitzeengatiko edo itzulketengatiko* abonamenduak (eskaeretan akatsak egon direlako, gehienetan): bi kasuetan, Farmazia Zerbitzuak medikamentuak itzultzen ditu itzul-keta-inprimaki bat osatuta. Inprimaki hori fakturak baliozkotzeaz arduratzen den pertsonari igortzen zaio, ohartaraziz handik gutxira abonamendu bat jasoko duela. Abonamenduaren faktura jasotzen denean, orduantxe sortzen da SAP-MM Almacenes sisteman eskaeraren itzul-keta (eta, horrenbestez, orduan deskontatzen dira stockari dagozkion unitateak), zeren eta ez baita abonamenduaren zenbatekoa ezagutzen hura jaso arte; abonamendua jasotzen ez bada, erreklamatu egiten da.

Prozedura horren eraginkortasuna, funtsean, fakturak baliozkotzearen arduradunak abonamendua jaso behar duela jakitearen ala ez jakitearen baitan dago; izan ere, inongo sisteman erregistraturik geratzen ez denez, gerta daiteke itzulketaren bat ez komunikatzea eta arduradunak ez jakitea zer erreklamatu behar duen. Balizko akats horiek beren ondorioak izanen lituzkete, halaber, aplikazio informatikoak erakusten duen stockaren zenbatekoen balioan, eta horrek, beste behin, fidagarritasuna kenduko lieke.

- *Rappelak edo/eta beherapen komertzialak*: fakturak baliozkotzearen ardura duen pertsonak prozedura masibotik heldu diren prezioak badauzka; halere, ez ditu ezagutzen gainerako produktuak erosteko zer negoziazio dauden. Horrek berekin dakar ez jakitea zehaztasunez zein abonamendu-faktura dauden jaso gabe, ez eta ordaindutako zenbatekoa zuzena den ala ez edo epean jaso den ala ez. Oro har, Nafarroako Ospitaleguneko Farmazia Zerbitzuak pertsona horri informazioa igortzen dio jaso behar duen abonamenduarekin eta haren zenbatekoarekin. Farmazia Zerbitzuak rappel edo/eta beherapen komertzialetatik heldu diren abonamenduak direla-eta egiten duen kontrola kopuru aipagarrienei eta kalkulatzeko errazena direnei buruz egiten du; gainerako abonamenduak direla eta, Farmazia Zerbitzuak ez du kontrol exhaustiborik egiten eta, oro har, ontzat ematen du kasuko laborategiak igorritako zenbatekoa, zeren eta, batzuetan zenbatekoak kalkulatzeko konplexua izaten baita, eta horrek haiek eskuratzea nabarmen zaildu dezake edo eragotzi ere egin dezake.

Bestetik, nabarmendu behar dugu ezen, arrazoa zein den ere, laborategiak abonamendua dirutan edo produktu-unitatetan egin dezakeela, itundutakoaren arabera. Ondoren erakusten dugu jasotako diru-abonamenduen fakturak erregistratzeko jarraitutako prozedura.

ABONAMENDUEN FAKTURAK ERREGISTRATZEKO PROZEDURA

Abonamendu fakturak FACEren bidez jasotzen dira; gaur egun, SAP-MM Almacenes aplikazioa ez dago prestatutik abonamenduen kudeaketa automatikoa egiteko; horrenbestez, ez dago bi aplikazioen arteko interfazerik.

Fakturak baliozkotzeaz arduratzen den pertsonak jasotako abonamenduak inprimatzen ditu eta baliozkotzen du zenbatekoa dagoen informazioaren arabera dela, edo datuak eskatzen dizkio Farmazia Zerbitzuari. Zenbatekoa zuzena bada, kopurua laborategiari ordaintzeke dagoen faktura batean beheratzen da, baldin eta faktura horren zenbatekoa abonamenduarena baino handiagoa bada. Laborategi horrekin jada lan egiten ez bada edo abonamenduaren zenbatekoa ordaintzeko dauden fakturena baino handiagoa bada, Kontabilitate-kudeaketaren eta Fakturazioaren Atalari informatzen zaio, eta horrek ordainketa-gutun bat egiten du hura kobratzeko.

Ordainketa-gutun horiei dagokienez, egiaztatu dugu ezen, txosten hau idazteko garaian, laborategi bati 2017ko martxoan igorritako ordainketa-gutun batzuk badaudela, 2016ko abonamenduei dagozkienak, eta 0,6 milioi euro egiten dutela. Hain zuzen, Nafarroako Ospitalegunea zenbateko hori jasotzeko dauka.

SAP-MM Almacenes aplikazioak ematen duen informazioaren arabera, Nafarroako Ospitale-guneak gutxienez ere 3,2 milioi euro egiten duten abonamenduak lortu zituen farmakoen erosketan. Aplikazioan islaturik agertzen ez diren abonamendu gehiago badaude, zeren eta abonamendu zenbateko handiagoko faktura batean egiten bada, sistemak ez baitu halakotzat identifikatzen. Gainera, detektatu dugu gutxienez ere sortutako abonamenduen 0,9 milioi euro badaudela 2016ko aurrekontuan kontabilizatu ez direnak; hori dela eta, uste izatekoa da aipatutako 3,2 milioi horiek 2015eko zenbatekoak badituztela. Bestetik, abonamenduei dagokienez, nabarmendu beharra dago aurrekontuan gastu txikiago baten gisara islatzen direla; aurreikusita dago etorkizuneko aurrekontuetan haiek diru-sarrerara gisa erregistratzea.

Abonamendu edo/eta beherapen horiek kudeatzeko prozedura berrikusita, Ganbera honek uste du gabezia nabarmenak dituela, eta haiek direla-eta hobekuntzak egin beharko lirakeela, bereziki honako hauek direla eta: fakturak baliozkotzen dituzten langileen informazio falta; abonamenduen guztizkoaren kontrol falta; produktuen iraugitzea ez berrikustea eta FACE bitartez jasotako abonamendu-fakturei buruzko informazio eskasa.

IV.5. FARMAKOEN LAGIN BATEN BERRIKUSPENA

Aurreko ataletan aztertutako prozeduren aplikazioa egiaztatzeko, 2016an sortutako aurrekontu-gastuaren ehuneko 65 egiten duten 65 farmakoren lagin bat berrikusi dugu (50,1 milioi euro egiten dute).

Zehazki, medikamentu bakoitzerako, erabilitako erosketa-prozedura aztertu dugu, bai eta kasuan kasu aplikatu beharreko abonamendu edo/eta beherapenak ere; halaber, urteko fakturen eta albaranen lagin bat aztertu dugu, zenbatekoen egokitasuna baliozkotzeko. Egindako fiskalizaziotik hainbat alderdi nabarmendu nahi ditugu. Hona:

- Abonamenduen erregistroak ez du prozedura homogeneorik jasotzen eta desberdina da abonamenduek faktura oso bat ordaintzen dutenean edo haren zati bat ordaintzen dutenean, faktura bati baino gehiagori dagozkienean edo unitate fisikoak itzultzen direnean, dirua itzuli ordez.
- Abonamenduak atzerapen nabarmenez erregistratzen dira, laborategiak jasotzen edo emititzen dituen unetik kontabilizatzen diren arte edo aurrekontu-partida bati egozten zaizkion arte, beste faktura baten kopurua gutxituz.
- Batzuetan, beherapenak produktu-unitateetan —eta ez dirutan— ordaintzen ditu laborategiak, farmakoa erosteko baldintzak arautzen dituen akordioan ezarritakoaz bestera.
- Aztertutako farmako batzuen informazio-erregistroan, akatsak daude prezioa xehakatzera-koan, baina aplikatutako amaierako prezioa zuzena da.
- Egiaztatu dugu akordio batzuen betetzeari buruzko jarraipenik ez dagoela, eta konfiantza jartzen dela laborategiak egiten dituen izapidetzeetan, horiek beti egokiak ez diren arren. Halere, Nafarroako Ospitaleguneak, geroztik, kasuko kopuruak erreklamatu ditu.
- Batzuetan ezin izan da egiaztatu abonamenduen zenbatekoaren arrazoizkotasuna, dokumentazioa falta delako edo dagoen dokumentazioan informazioa falta delako; halere, ateratzen den kopurua itundutakotik hurbil dago; horri dagokionez, egiaztatu ditugu FACEren fakturretan informazioa aurkezterakoan gabezia badaudela, eta horrek eragozten duela ale bakarraren prezioa xehakatzea.
- Detektatu dugu farmako baten 100 ale itzuli direla —119.840 euro egiten dute—, eskaeran oker bat izan zelako. Horien abonamendua jaso gabe zegoen eta horren erreklamazioa komunikatu gabe zegoen; hori dela eta, jarraitutako prozedura dela eta, medikamentu horren stocka ez da zuzendu. Halaber, beste farmako bat analizatzerakoan, 15.965 euroko beste abonamendu bat detektatu da, erreklamatu behar zena (halakorik ez da egin, ordea). Nafarroako Ospitaleguneko Farmazia Zerbitzuak txosten hau idazteko garaian, abonamendu horiek erreklamatzeko izapidetak hasita daude.

IV.6. AMAIERAKO ONDORIOA ETA GOMENDIOAK

Azken batean, lan hau egin ondoren, ulertzen dugu farmakoen sektorea oso berezia dela, eta haren kudeaketa ezin dela parekatu osasun-konsumoko beste material batzuenarekin. Hori guztia dela eta, uste dugu mekanismo eta prozedura arinak aplikatu behar direla, gaixoaren arreta zailtzen ez dutenak eta beharren plangintza egokia eta farmakoen erosketa egokia lehenesten dituztenak; halaber, stocken gaineko bidezkoa den kontrola egin beharra dago.

Nafarroako Ospitaleguneko farmakoen kudeaketa berrikusita, Kontuen Ganberak uste du ga-bezia aipagarri batzuk badituela, eta haiek lotu behar direla erosketarako erabili diren prozedurekin, abonamenduen edo/eta beharapenen kudeaketarekin eta stocken kontrolarekin; izan ere halakoak hobetu egin beharko lirateke. Honako hauek gomendatzen ditugu horretarako:

- *Akordioen erregistro informatiko bat egitea, haien kontrola eta jarraipena errazteko, eta informazio hori ematea fakturak baliozkotzeaz arduratzen den pertsonari, berrikuspena hobetze aldera.*

- *Dauden akordioei buruzko kontrol exhaustibo bat egitea, bereziki jaso beharreko abonamendu edo/eta beharapenei dagokienez, haiek jasotzerakoan geroratzeak saihesteko.*

- *Abonamenduak kontabilizatzea haien berri izan bezain laster, informazioa ahal den azkarrena islatzeko sisteman.*

- *Interfaze egoki bat zehaztea, haren bitartez SAPen automatikoki kudeatu ahal izateko FACEn bidez jasotako abonamenduak.*

- *Farmakoen stock erabilgarrien inbentarioak egiteko prozedura bat ezartzea, produktu mota hori hobeki kudeatu ahal izateko.*

- *Behin farmakoen inbentarioa eginda, SAP-MM Almacenesen stockak zuzentzea lortutako zenbateko errealekin.*

- *SAP-MM Almacenes sistemaren prestazioak ahal den guztian aprobetxatzea, farmakoen stocken kudeaketa hobetzeko, eta, zehazkiago, honako hauek: erosketarako jarraitutako prozedura; eskaerak egitea erreferentziako gutxieneko eta gehieneko stockak ezarriz; iraungitzeen gaineko kontrola; abonamenduen kudeaketa, eta abar.*

- *Bidezko diren jarduketa informatikoak egitea erregistro elektronikoan, fakturen edukiari eta deskribapenari buruzko informazio handiagoa lortzea bideratzeko.*

- *Farmakoak erosteko prozedurak diseinatzea, kontratazioari buruzko araudian jasotako printzipioak errespetatzen dituztenak eta legezko estaldura egokia ematen dutenak, sektorearen berezitasunak kontuan hartuta.*

- *FarHo eta SAP-MM Almacenes sistemen arteko datuen iraultze aldi berekoa egitea, medikamentu eskusiboen kasuan.*

- *SAP-MM Almacenes sisteman egokitzat jotzen diren mugak ezartzea, farmakoen erregistroaren eta eskaeren balizko aldaketetan egon daitekeen arriskua ahal den guztian gutxitzeko.*

- *SAPen aurrekontu-kontabilitaterako aplikazioa egokitzea, eragotz dadin aurrez sinatu ez diren fakturak erregistratu ahal daitezela.*

- *Deskribatutako eragiketetan eginkizunak egoki bereiztea, pertsona berarengan egitekoak meta daitezen saihesteko.*

- *Nafarroako Ospitaleguneko biltegiaren instalazioak eta kanpoko gaixoentzako kontsultak hobetzea, kostu handiena duten medikamentuetarako segurtasun neurri egokiak ezarriz.*

- *Aztertzea ez ote den komeni Farmazia Zerbitzuan administrazio-kudeaketaren profila duen pertsona bat edukitzea, txostenean zehar azaldutako gabeziei konponbidea ematen laguntzeko.*

- *Sortzapenaren irizpidea aplikatzea farmakoen gastuen eta abonamenduak ekitaldi bakoitzeko aurrekontuan erregistratzeko.*

Txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore Karen Moreno Orduña andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2017ko ekainaren 28an

Lehendakaria,
Asunción Olaechea Estanga

1. ERANSKINA O-NOZeko OSPITALE-ZENTROETAKO FARMAZIA ZERBITZUEN EGINKIZUNAK (FARMAZIA LAGUNTZARI BURUZKO 12/2000 FORU LEGEA).

- Farmazia Batzordearen bidez parte hartzea zentroak erosi beharreko medikamentu eta osasun produktuak hautatzeko prozesuan, betiere eraginkortasuna, segurtasuna, kalitatea eta kostua harturik irizpide.
- Zentroak erosten dituen medikamentuak erosi eta ematean ardura teknikoa bere gain hartzea, eta bai medikamentu premiak ase, biltegiratu, balioaldia begiratu, kontserbatu, altxatu eta banatzearen ardura ere hartzea.
- Maisu formulak eta farmazia prestakinak prestatu, kontserbatu, altxatu eta ematea, fabrikazio arauak egoki beteaz haien kalitatea bermatuz.
- Zentroan medikamentuak banatzeko sistema eraginkorra eta segurua ezartzea, haien administrazio egokia bermatzeko moduko neurriak ezarriz; ahal dela, dosi bakarreko ontzian helaraziz.
- Zentro horietan aplikatu behar diren medikamentuak eta osasun laguntzako talde multidiziplinarraren arreta, gainbegiratze eta kontrol berezia beharrezkoa dutenak ere eman eta kontrolatzea.
- Ospitaleko laguntzaren kalitatea kontrolatzeko programetan parte hartzea, beren jakitatea onuragarri den batzorde edo lan taldeetan parte hartuz.
- Arau indardunek estupefazianteak, psikotropoak eta mugaketa bereziak dituzten beste produktuei buruz ezartzen dituzten baldintzak bete eta betearazi, eta bai ikerketa klinikoaren fasean diren sustantzia eta produktuei buruzkoak ere.
- Medikamentuen arloan osasun langileei eta eriei informazioa eta prestakuntza emateko sistema bat ezartzea, medikamentuen erabilera arrazionala sustatzeko.
- Farmakoei buruzko zaintza-jarraipena egitea, medikamentuen balizko eragin kaltegarriak detektatzeko eta horien berri zainketa farmakologikoko sistemari emateko.
- Oinarrizko laguntzarako eta laguntza espezializaturako egiturekin lan egitea medikamentuak behar direnean erabiltzea bultzatzeko.
- Farmakozinetika klinikoko jarduerak egitea edo haietan laguntzaile aritzea.
- Medikamentu eta osasun produktuak hobeki erabiltzeko balio duten beste eginkizun guztiak.


2. ERANSKINA O-NOZeko FARMAZIA ZUZENDARIODETZAREN EGINKIZUNAK (171/2015 FORU DEKRETUA, O-NOZEN ESTATUTUAK ONESTEKOA)

- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ezarria duen Botikak Zentzuz Erabiltzeko Programa planifikatu, antolatu, zuzendu eta ebaluatzea.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak entitate publiko edo pribatuekin farmazia presazioaren eta produktu dietoterapikoen arloan sinatu beharreko itunen proposamenak egitea.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko informazio farmazeutikoaren sistema integralaren eskakizunak ezartzea.
- Zentroetako farmazia komiteak eta batzordeak koordinatzea.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zentroetan edo itunduetan erabiltzen eta errezetetzen diren botika berrien ebaluazio eta kalifikazio terapeutikoa bere gain hartzea.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zentroen protokolo terapeutikoak eta gida farmakoterapeutikoak egitea sustatzea.
- Erosketa zentralizatua bultzatzea eta irizpideak ezartzea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zentroetan erabiltzen eta errezetetzen diren botiken erosketa optimizatzeko.
- Sendagaien eta Osasun Produktuen Bermeei eta Erabilera Arrazionalari buruzko Legean botiken preskripzioan laguntzeko ezarritako sistemak sustatzea.
- Medikazioa Bateratzeko Programak ezartzea eta horien betetze-maila ebaluatzea.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren ospitalez kanpoko prestazio farmazeutikoak kudeatzea.
- Aurrekoekin loturik, Eriaren Osasun Laguntzarako Zuzendaritzak agintzen dizkionak.

3. ERANSKINA O-NOZeko FARMAZIA BATZORDE ZENTRALAREN EGINKIZUNAK (42/2016 FORU AGINDUA, BATZORDE HORI SORTZEKO)


- Elkarlanerako jarraibideak proposatzea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun laguntzako esparru guztietako osasun arloko profesionalak sendagaiak eta farmaziako osasun produktuak eraginkortasunez, segurtasunez eta eragimenez errezeta ditzaten.
- Ospitalean erabili edo diagnostikatu beharreko sendagai berriak sartzeko proposamenek aurrekontuan duten eragina ebaluatzea. Sendagai horiek foru agindu honen eranskineko kategorietakoak dira, eta ospitale ezberdinetako farmazia batzordeek eta batzorde terapeutikoez eginen dituzte proposamenak.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko kudeaketa zuzendaritzari proposamenak egi-tea honako hauei buruz: ospitalean erabili edo diagnostikatu beharreko sendagai berriak, foru agindu honen eranskinekoak, sartzea; sendagai horien erabilera terapeutiko korporatiboa gauzatzeko modua; eta jarraipen klinikorako eta erantzun terapeutikorako irizpideak, bakoitzaren fitxa teknikoan bildutako jarraibideekin bat.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko kudeaketa zuzendaritzari norbanako baimena proposatzea sendagaiak erabiltzeko, inguruabar kliniko bereziengatik komeni denean.
- Elkarlanerako jarraibideak proposatzea sendagaiak erabili eta bateratzeko, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun laguntzako esparru guztien artean.
- Aholku teknikoak ematea irizpideak ezartzeko, sendagaien eta farmaziako osasun produktuen erosketa bateratuak hobetzearren, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zentroek eskaturik.
- Sendagaien zentzuzko erabilerarekin lotutako osasun arloko profesionalen prestakuntza jarraiturako programa eta jardueretan aholku ematea.
- Osasun hezkuntzako neurriak eta jarduerak proposatzea herritarrentzat, sendagaien zentzuzko erabilerarekin lotuak.
- Sendagaiak zentzuz erabiltzeari lotutako beste edozein eginkizun, bere garrantziagatik batzordeak parte hartu behar badu.

4.1. ERANSKINA FARMAKOEN HORNIDURA



(*) Ubarmin Klinikari administrari bat dute astean bi orduz.

4.3. ERANSKINA FARMAKOEN BANAKETA: PRESKRIPZIOA, BALIOZKOTZEA, DISPENTSAZIOA ETA SAP-GE21 SISTEMAN ERREGISTRATZEA.



NAFARROAKO OSPITALEGUNEKO FARMAKOEN KUDEAKETARI BURUZ KONTUEN GANBERAK EGINDAKO BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko (O-NOZ) Gerentziak, O-NOZeko Farmazia Zuzendariordeak eta Nafarroako Ospitaleguneko Gerentziak 2017ko ekainaren 21ean jaso dute Nafarroako Ospitaleguneko farmakoek kudeaketari buruz Nafarroako Kontuen Ganberak egin duen behin-behineko txostena.

Honako alegazio edo/eta iruzkin hauekin erantzuten diogu.

I- NAFARROAKO OSPITALEGUNEKO FARMAKOEN KUDEAKETA ZEDARRITZEN DUTEN ALDERDIAK.

1- Nabarmendu beharra dago ezen, Farmazia Laguntzari buruzko 12/2000 Foru Legeak deskribatzen duen bezala (txostenaren 1. eranskina), ospitale zentroetako farmazia zerbitzuen eginkizunak direla, besteak beste, ospitaleko Farmazia Batzordearen bidez parte hartzea zentroak erosi beharreko medikamentuen aukeraketan. Erabaki adostuak dira, teknikoki baloratuak, zentroetako zuzendaritzari aholkua emateko eta gero ospitaleko langileek bete ditzaten. Zehazki, Nafarroako Ospitaleguneko Farmazia eta Terapeutika Batzordearen eginkizunei erreparatuta, 2014ko urrian onetsitako V7-1-PNT-1 Medikamentuen Aukeraketa eta Gida Terapeutikoa izeneko lanerako prozedura normalizatuan azaltzen den bezala, honako hauek aurkitzen ditugu:

- Nafarroako Ospitaleguneko Batzorde Tekniko Laguntzaileari eta Zuzendaritzari informazioa eta aholkua ematea medikamentuen erabilera eragina duten alderdi guztiei buruz.

- Zentroan erabiliko diren medikamentuak aukeratzeko, honako irizpide objektibo hauen arabera: kalitatea, eraginkortasuna, segurtasuna eta kostua.

- Gida Farmakoterapeutiko bat egin eta gaurkotzea onetsitako medikamentuekin eta haiek zentroan erabiltzeko baldintzekin.

- Medikamentuen erabilera arrazionala sustatzea.. Hori honako hauek eginez gauzatuko da:

- Medikamentuen erabilera-irizpideak zehaztea.

- Preskripzioari eta dispensazioari buruzko araudiak proposatzea. Arau horiek bilatuko dute medikamentuak efizientziaz erabil daitezela eta saihestu egiten dituzte erabilerarekin lotutako balizko medikazio-akatsak.

- Medikamentuen erabilera dela-eta ezarritako politiken jarraipen- eta ebaluazio-sistemak ezartzea.

- Informazio farmakoterapeutikoko sistemak edo/eta programak ezartzea, bai eta prestakuntza jarraitukoak ere.

- Medikamentuen erabilerarekin lotutako ikerketak eta azterlanak sustatzea.

- Medikamentuen erreakzio kaltegarriak erregistratu eta berrikustea.

- Beste komite batzuekin batera lankidetzan jardutea medikamentuen erabilerarekin lotutako alderdietan. (Infekzioen Batzordea, Batzorde Etikoa, Segurtasun Batzordea, Farmakozaintzako Batzorde Autonomikoa, eta abar...).

- Medikamentuen erabilera aurrekontuan duen eraginaren ebaluazio sistematikoa, eta arlo farmakoekonomikoan neurri egokiak hartzea.

- Preskripzio sisteman neurriak sustatzea, preskripzio lagunduko eredu bat bultzatuko dutenak.

- Farmazia eta Terapeutika Batzordean erabakitako jarraibide eta proposamenak zentroko fakultatibo guztiek bete beharrekoak izanzen dira.

Gida Terapeutikoa osasun arloko profesionalen adostasun terapeutikoa biltzen duen dokumentua da, eta bertan zehazten dira Farmazia eta Terapeutika Batzordeak ospitaleratuta dauden gaixoen beharrezko terapeutikoa guztiak estaltzeko aukeratu dituen medikamentuak.

2.- Bestetik, aipatu beharra dago Nafarroako Ospitalegunearen erosketa-prozedurak, Kontuen Ganberak egindako txostenaren deskribatzen direnak, O-NOZen gainerako ospitaleetan, eta are gaine-

rako autonomia erkidegoetako ospitaleetan ere, egiten direnen antzekoak direla, haien auditoria-organoen bitartez jakin ahal izan dugun bezala.

3.- Nabarmentzekoa da Nafarroako Ospitalegunearen kasuan, gaur egun zentroko Zuzendaritzaren eta Farmazia Zerbitzuaren artean medikamentuen urteko gastuari buruzko aurreikuspen bat egiten dutela, zerbitzu klinikoak inplikatur, medikamentuaren eta baliabideen arrazoizko erabilera konpromiso gisa hartuta.

II. DOKUMENTUKO TESTUA DELA-ETA HONAKO ALEGAZIO HAUEK EGIN DITUGU:

Kontuen Ganberak emandako gomendioen artean, txostenaren azken atalean,

honako hauek ageri dira:

- *Akordioen erregistro automatizatu bat egitea, haien kontrola eta jarraipena errazteko, eta informazio hori ematea fakturak baliozkotzeaz arduratzen den pertsonari, berrikuspena hobetze aldera.*

O-NOZeko Farmazia Zuzendariordeak erantzuten du ezen ezarritako akordioen gaur egungo erregistroa eta zaintza alde batera utzita, O-NOZek modu zentralizatuan egiten dituen esparru-akordioen edo bestelako kontratazio-modalitateen erregistro bat edukiko dugula.

Honako gomendio hauei dagokionez:

- *Dauden akordioei buruzko kontrol exhaustibo bat egitea, bereziki jaso beharreko abonamendu edo/eta beherapenei dagokionez, haiek jasotzerakoan geroratzek saihesteko.*

- *Abonamenduak kontabilizatzea haien berri izan bezain laster, informazioa ahal den azkarrena islatzeko sisteman.*

- *Interfaze egoki bat zehaztea, haren bitartez SAPen automatikoki kudeatu ahal izateko FACE-ren bidez jasotako abonamenduak.*

– Nafarroako Ospitalegunek erantzuten du, eta Farmazia Zuzendariordeak ados dago horrekin, ezen, SAP-MM programaren bidez abonamenduen kudeaketa eta jarraipena egiteko detektatu zen zailtasuna ikusita —horri gehitu behar zaio, gainera, horiek formatu elektronikoa (FACE) jasotzen direla duela 2-3 urte—, 2015ean, Nafarroako Ospitaleguneko Farmazia Zerbitzuko arduradunak SAP-MM programaren egokitze bat eskatu zuela, haien kudeaketa eta jarraipena hobetzeko. Hori Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Informatikaren, Telekomunikazioen eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren “Zuzenketa-fakturen eta abonamenduen trataeraren garapena” izeneko 19.546 zenbakiko lanean gauzatu zen, eta oraindik ere garatzen ari da. Aurreikusi da lan hori 2017aren amaiera baino lehen amaituko dela.

Honako gomendio hauei dagokionez:

- *Farmakoen stock erabilgarrien inbentarioak egiteko prozedura bat ezartzea, produktu mota hori hobeki kudeatu ahal izateko.*

- *Behin farmakoen inbentarioa eginda, SAP-MM Almacenesen stockak zuzentzea lortutako zenbateko errealekin.*

- *SAP-MM Almacenes sistemaren prestazioak ahal den guztian aprobetxatzea, farmakoen stocken kudeaketa hobetzeko, eta, zehazkiago, honako hauek: erosketarako jarraitutako prozedura; eskaerak egitea erreferentziako gutxieneko eta gehieneko stockak ezarriz; iraungitzeen gaineko kontrola; abonamenduen kudeaketa, eta abar.*

- *Deskribatutako eragiketetan eginkizunak egoki bereiztea, pertsona berarengan egitekoak meta daitezen saihesteko.*

- *Aztertzea ez ote den komeni Farmazia Zerbitzuan administrazio-kudeaketaren profila duen pertsona bat edukitzea, txostenean zehar azaldutako gabeziei konponbidea ematen laguntzeko.*

Nafarroako Ospitalegunek honako hau erantzun du:

– Stocken kontrolari, inbentarioen diseinu eta programazioari eta beharrezan plangintzari (eskaerak) dagokionez: dokumentuan aipatzen den bezala, SAP-MM kudeaketa-programa 2016ko urtarri-lean ezarri zen Nafarroako Ospitaleguneko Farmazian. Izan ere, O-NOZeko lehenengo ospitalea izan zen harekin lanean hasi zena, eta horrek berekin ekarri zuen zenbait hilabetez Nafarroako Ospitalegunen birdiseinatze- eta egonkortze-arazoei aurre egin behar izatea. Horri esker, jada urte bereko ekaitan, erkidegoko gainerako ospitaleetara (García Orcoyen Ospitalea, Reina Sofía Ospitalea, Osasun Mentala) hedatu ahal izan zen. Hori guztia dela eta, gaur egun kudeaketarako gaitasuna hobetzeko

proiektu bat badagoen arren, auditoria egiteko unean oraindik ere ezin izan zaio aurre egin. SAPen diseinatutako hobekuntza proiektuaren barruan, inbentarioa kontrolatzeko, iraungitzeak kudeatzeko eta eskaera-gunean abian jartzeko diseinu-plan bat badago.

– Aurreko puntuarekin bat, eta dokumentuan azaltzen denez, helburu horiek lortu ahal izateko duela zenbait hilabete biltegiak kudeatzeko, logistikarako eta kontrolerako egitura bat eta baliabide lagungarri batzuk ezartzeko beharra ikusi zen. Nafarroako Ospitalegunea jada hasita dago bidezko diren kudeaketak egiten egitura hori berrantolatzeke kudeaketako, biltegiako logistikarako eta administrazio-lanetarako teknikarien laguntzarekin.

– Halaber, biltegien kudeaketa-sistemarekin lotuta, eta, halaber, auditoria txostenean deskribaturik, jada kudeaketa-programarekin lanean hasi eta berehala desadostasun batzuk aurkitu ziren kontsumoen eta izakinen arteko komunikazioan. Desadostasun hori gertatzen da, biltegien jarraipen hobe egiteari buruzko aipatutako behararengatik ez ezik, kudeaketa-sistemak gaixoari esleitutako informazio klinikoarekin integratzeak berekin dakarren zailtasunagatik ere. Informazio sistema GUZTIK (kudeaketakoak, klinikoak, prestaketakoak eta banaketakoak) erabat integratzeko helburu zabalak zailtasun handiak dauzka: Azken hiru urteetan, farmaziako hiru zerbitzuak batu ondoren, lortu da gaixo bakoitzaren araberrako medikamentu-kontsumoen esleipenaren portzentajea hobetzea; izan ere gaixo bakoitzeko medikazio-esleipena % 45 baino gutxiago izatetik 2016an % 97 izatera iritsi da. Nafarroako Ospitaleguneko profesional guztien preskripzio-, kudeaketa- eta integrazio-sistemak hobetu izanari esker, une honetan ospitalean artatutako gaixo guztien (ospitaleratuak eta ambulatorioak) informazio terapeutiko osoa badaukagu. Horrek bere baitan biltzen du, baliabideen esleipenari buruzko ezagutzaz gainera, medikamentuen banaketa eta zain barneko nahasteen prestaketa guztiz integratuta eta zuzen identifikatuta egotea, horrek berekin dakarren segurtasunarekin.

Honako gomendio honi dagokionez:

- *Bidezko diren jarduketak informatikoak egitea erregistro elektronikoan, fakturen edukiari eta deskribapenari buruzko informazio handiagoa lortzea bideratzeko.*

Nafarroako Ospitaleguneak erantzuten du esanez arazo horren aurrean, Farmazia Zerbitzuak, 2016aren hasieran, Informatikaren, Telekomunikazioen eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusiari eskatu ziola fakturen erregistro elektronikoari buruz zegoen informazioa zabaltzeko. Sortutako pdf dokumentuan espazio gutxi zegoela eta, erabaki zen funtzionaltasun bat garatzea, zeinean fakturen xehakatzeari buruzko informazioa zabaltzeko ahalago zen, batez ere beherapenen tasei zegokienez.

Honako gomendio honi dagokionez:

- *Farmakoak erosteko prozedurak diseinatzea, kontratazioari buruzko araudian jasotako printzipioak errespetatzen dituztenak eta legezko estaldura egokia ematen dutenak, sektorearen berezitasunak kontuan hartuta.*

Farmazia Zuzendariordetzak erantzuten du esanez alderdi horretan lan egiten hasi dela jada. Farmazia Zuzendariordetzaren berariazko helburuen eta O-NOZen helburu estrategikoen barruan dago 2020an medikamentuen gastuaren % 85 baino gehiago Kontratuei buruzko Legearen prozeduraren arabera egiten dela. Prozeduren konplexutasuna dela eta, zail gertatzen da data hori betetzea, baina ahal legin guztiak egiten ari dira hori lortzeko. Horretarako, beste ekintza batzuen artean, lan egiten ari gara nomenklaturaren kudeaketa zentralizatua egiteko O-NOZ osoan, bai eta SAPen egiten diren esparruakordioen kudeaketa zentralizatua egiteko ere; horietarako, izan ere, jada irekita daude kasuko lan informatikoak.

Honako gomendio hauei dagokienez:

- *SAP-MM Almacenes sisteman egokitzeak jotzen diren mugak ezartzea, farmakoen erregistroaren eta eskaeren balizko aldaketetan egon daitekeen arriskua ahal den gutxian gutxitzeko.*

- *SAPen aurrekontu-kontabilitaterako aplikazioa egokitzea, eragotz dadin aurrez sinatu ez diren fakturak erregistratu ahal daitezela.*

- *Sortzapenaren irizpidea aplikatzea farmakoen gastuen eta abonamenduak ekitaldi bakoitzeko aurrekontuan erregistratzeko.*

Nafarroako Ospitaleguneak honako hau erantzun du:

– Farmakoen erregistroan eta eskaerak egitean egin beharreko aldaketei dagokienez, prezio hori alda badaiteke ere inork ez ditu sisteman erregistratutako prezioen baldintza ekonomikoak aldatzen, eta hori dela eta, O-NOZekin aldaketa erregistratuta geratzen da, geroztik egiaztatu ahal izan dadin. Sistemak ez du aukerarik ematen info erregistroan ezarritakoaz beste prezio batean erosteko.

SAPen mantentze-lanetako lantaldeari eskaera bat egin behar zaio SAPen esparru-kontratuak grabatu ahal daitezen, hartara, prezio-aldaketak saihesteko. Prezio horiek Master profila duten langileek baizik ezin izanen dute aldatu.

– Fakturen sinatzea. Fakturak sinatzeko prozedura Nafarroako Gobernuo Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Kontabilitate Zerbitzuak eta Kontu-hartzailletza Delegatuak ezarritakoa da.

– Sortzapenaren irizpidea. Fakturen sinadurarekin gertatzen den bezala, atal honetan Kontabilitatearen eta Kontu-hartzailletza Delegatuaren Zerbitzuko zuzendaritzak ezarritako printzipioei jarraitzen zaie. Farmakoen abonamenduen fakturen erregistroaren automatizazioari buruzko garapen informatikoa garatzea falta da.

Honako gomendio honi dagokionez:

• *Nafarroako Ospitaleguneko biltegiaren instalazioak eta kanpoko gaixoentzako kontsultak hobetzea, kostu handiena duten medikamentuetarako segurtasun neurri egokiak ezarriz.*

Nafarroako Ospitalegunek erantzuten du ezen gaur egun jada onetsita dagoela Kanpoko Gai-xoen Farmazia Arretarako Atalaren zabaltzea eta birmoldatzea, eta espero dela obrak 2017ko azken hilabeteetan hasia.

Halaber, aurreikusita dago 2018an inbertsio bat egitea Nafarroako Ospitaleko eta Bideko Ama Birjina Ospitaleko medikamentuen biltegiak zentralizatu eta robotizatzeko.

Behin-behineko txosteneko azken gomendioei buruzko alegazioez gainera, testuari buruzko honako iruzkin hauek egin behar ditugu:

Iraungitzeen kudeaketari dagokionez (17. orrialdea), Nafarroako Ospitalegunek nabarmendu nahi du ospitale-farmaziako zerbitzuetako medikamentuen iraugitze arazoak ohikoak direla, eta berez gertatzen direla ematen den laguntza mota horretan. Farmako batzuk, behar klinikoengatik eta larritasuna dela eta, beti egon behar dute eskura; horregatik, izakinen gutxieneko batzuei eutsi behar zaie beti. Horixe da, eta ez stocken kudeaketa txarra, eragiten duena batzuetan medikamentu batzuk erabili baino lehen iraugitzea. Oro har hornitzaileek iraugitako medikamentuen itzulketak beren gain hartzen dituztela alde batera utzita, gorago azaldu den bezala, Farmazia Zerbitzuaren proiektu bat da iraugitzeak SAP programaren bidez automatizatzea.

Eta, azkenik, iruzkin batean aipatzen da ez dagoela jasota medikamentu ez-esklusiboen beste hornitzaile batzuekin negoziatu zen ala ez (20. orrialdea). Bada horri buruz jakitera ematen da, 2016tik, urte horretako hasierako akordioen prozedura "masiboa" abian jarri ondoren, lehia eta negoziazio berriak ekar ditzaketen medikamentu generikoak merkatuan agertzen diren unean, datatik kanpo baldin badaude, Farmazia Zerbitzuak informatikoki eskatzen eta erregistratzen dituela, modu arautuan, hornitzaileengandik jasotako eskaintza guztiak, haiek aztertuta erabaki bat hartu ahal izateko. Hori egiten ari gara geroko prozedura batean aukera hori sartzen ez den bitartean; izan ere, gorago aipatu den bezala, gure nahia da hori gaur egun esparru-akordio baten bitartez egin dadila.

Iruñean, 2017ko ekainaren hogeita zortzian

Nafarroako Ospitaleguneko kudeatzailea: Antonio Merino Díaz de Cerio

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMAN-DAKO ERANTZUNA

Eskerrak eman nahi dizkiogu Nafarroako Ospitaleguneko kudeatzaileari aurkeztu dizkigun alegazioengatik. Alegazio horiek behin-behineko txostenari eransten zaizkio eta hori behin betikotzat hartzen da, egindako fiskalizazioaren azalpena direlako eta ez dutelako edukia aldatzen.

Iruñean, 2017ko ekainaren 28an

Lehendakaria: Asunción Olaechea Estanga

Santos Cerdán León jaunak foru parlamentari karguari uko egitea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko irailaren 4an eginiko bilkuran, besteak beste honako erabaki hau hartu zuen:

Foru parlamentari Santos Cerdán León jaunak aurkezturiko uko-idazkia dela-eta, honako hau ERABAKI DA:

1. Jasotzat ematea Santos Cerdán León jaunak aurkeztutako idazkia, 2017ko irailaren 4tik aurrerako ondorioekin uko egitekoa foru parlamentari

izaerari, zeina lortu baitzuen martxoaren 30eko 2/2015 Foru Dekretuaren bidez deituriko Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan (62. zenbaki-ko NAO, 2017ko martxoaren 31koa), PSN-Nafarroako Alderdi Sozialistaren hautagaitzaren barruan.

2. Agintzea erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2017ko irailaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza